

argitalpena

Juliana Zubizarreta pandero jotzaile
ohiari elkarriketa egin dio 'Barren'-ek

Elgoibarko *Barren* astekariak, Juliana Zubizarreta, bertako pandero jotzaile ohiari elkarriketa egin dio bere azken alean. Zubizarretak 91 urte ditu, eta urteetan hamaika erromeria girotu ditu. Pandero jotzaileak esan duenez, garai batean «soilik soinu jotzaileak kobratzen zuen». Dakiena entzundakoarekin ikasi duela aitortu du Julianak.



Argitaratzailea: Izarra kultur elkarte

landarea

'Dracaena fragans masaangeana',
berotasuna behar duen landarea

Beste landare asko bezala, eguzki galdatan erre egingo da *Dracaena fragans* mota hau, baina argitasuna behar-beharrezkoa du arrera egingo badu. 15 gradutik gora eduki behar da, 10tik behera hostoak galduko baititu. Udaberrian eta udan asko ureztatu, eta neguan lehor samar eutsi lurrari. Ugalketarako, beldurrik gabe enborra moztu.



Jakoba Errekondo (Elhuyar)

musika

ARRIGORRIAGA. Argia zortzikotea. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Lonbo aretoan.

BAIONA. Bi pianotako kontzertua. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Saint-Esprit eskolan.

BERGARA. Ira et decesus, Nor jainkoa bezala. Bihar, gaueko 22:30ean, gaztetxean.

Astrozombies, Capitan Nemo, Huevos de Kinder. Bihar, gaueko 22:30ean, gaztetxean.

Tronpeta eta organo kontzertua. Bihar, 20:00etan, San Pedro elizan.

BERRIZ. Ene Bada, Morau. Gaur, gaueko 22:30ean, gaztetxean.

MPB, Esklerosis, Dirties. Bihar, gaueko 22:30ean, gaztetxean.

BILBO. 'Sevillako bizargina' (opera). Gaur, gaueko 21:00etan, Aiala antzokian; urtarrilaren 19an, gaueko 20:00etan eta 22:30ean; eta urtarrilaren 20an, arratsaldeko 17:00etan eta 20:00etan.

Jon Auer, Eugene Kelly. Gaur, gaueko 22:00etan, Azkena aretoan.

Perfect. Gaur, Euskalduna jauregian, arratsaldeko 20:30ean.

Los fastuosos de la ribera, Negraloca (Bilbotar Rythm & Blues festa). Gaur, gaueko 22:00etan, Kafe Antzokian.

Pauline en la playa. Bihar, Bilborock aretoan, gaueko 21:00etan.

DONAPALEU. Berri Txarrak. Gaur, 22:00etan, Elorri ostatuan.

DONOSTIA. Güzenich Orchester Köln. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Kursaallean.

NCC. Gaur, Intxaurrendoko gaztetxean, gaueko 22:00etan.

Antonio Orozko. Gaur, gaueko 23:30ean, Cantante Kandela aretoan.

DURANGO. Joseba Tapia (Agur intxorta maite). Gaur, San Agustin kultur aretoan, gaueko 22:30ean.

ELORRIO. Ruper Ordorika. Bihar, gaueko 22:30ean, Arriola kultur aretoan.

GASTEIZ. Naco Goñi. Bihar, 22:30ean, Helldorado elkarte

HAZPARREN. Jaquartet. Gaur, 21:30ean, Xuritean.

HENDAIA. Les oisillons tombes du nid. Gaur, gaueko 21:00etan, Varietes antzokian.

Josu Goia, Ken 7, Etsaiak. Bihar, Beltzenia pilotalekuan, 21:00etan, gaztetxearen alde.

IRUN. Metal maratonia. Bihar, gaueko 21:30ean, Tunk aretoan.

musika

Nuevo Catecismo Catolico. Gaur, Donostiako Intxaurrendoko gaztetxean (22:00etan)

'Scarred for life' disko berriaren indarra
erakutsiko du NCCK Intxaurrendon

Donostiako Egia auzoko Nuevo Catecismo Catolico aspaldiko punk-rock taldeak 'Scarred for life' diskoa kaleratu zuen iazko abenduan. Berau aurkeztuko dute gaur gauean Intxaurrendoko gaztetxean. Eneko abeslari berriaren ahotsa entzuteko aukera izango da, 22:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA. La cabra mecanica. Gaur, Kultur Etxean, gaueko 22:00etan.

LEGAZPI. Zway, Especial west. Bihar, 22:00etan, Arrano tabernan.

LEIOA. Perfect. Bihar, Lamiako antzokian, arratsaldeko 20:30ean.

MIARRITZE. Paco Ibañez. Bihar, arratsaldeko 20:30ean, Gare du Midi aretoan.

OIARTZUN. Full House. Gaur, Pagoan, gauean.

ORDIZIA. House gaua: Juantxo. Bihar, gaueko 23:00etan, Gugar tabernan.

ZALDIBIA. Pariak bai. Gaur, 22:30ean, Joxepane ostatuan.

ZAMUDIO. Mikel Errazkin. Gaur, Kultur Etxean.

ZARAUZ. Etxabe anaiak. Gaur, 23:00etan, Urteta auzoan.

antzerkia

AGURAIN. 'Ex simbols'. Bihar, 22:30ean, Harresin, La Peineta producciones taldearen eskutik.

BARAKALDO. 'Trampa para un hombre...'. Gaur eta bihar, arratsaldeko 20:30ean, Barakaldo

antzokian. Urtarrilaren 20an, 20:00etan izango da.

BERRIZ. 'La venganza de los hippies'. Urtarrilaren 20an, gaztetxean, 19:00etan.

BILBO. 'Esperando a Godot'. Bihar eta urtarrilaren 20an, arratsaldeko 20:30ean, La Fundicion aretoan.

EIBAR. 'Aitonaren kontuak'. Bihar, arratsaldeko 18:00etan, Portalean, Gorakadaren eskutik.

ELGOIBAR. 'Aupa Kintxo'. Bihar, Takolo, Pirritx eta Porrotxen eskutik, Herriko antzokian, 11:30ean.

ELORRIO. 'Kontu konta zan'. Urtarrilaren 20an, 17:00etan, Azikaren eskutik, Arriolan.

ERANDIO. 'Con D de directo'. Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Erandio Bekoa ikastetxean, Alborada taldearen eskutik.

ERMUA. 'La vendetta'. Gaur, gaueko 22:15ean, Zineman, Leo Bassiren eskutik.

ESKORIATZA. 'Sobre los perjuicios del tabaco'. Gaur, gaueko 22:30ean, Unibertsitateko areto nagusian, Txaloren eskutik.

GASTEIZ. 'Gorria'. Gaur,

arratsaldeko 20:00etan, Hika ateneoan, Zeharka Laborategiaren eskutik.

GETXO. 'La vendetta' ikuskizuna. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Getxo antzokian. Leo Bassiren eskutik.

HUARTE. 'Sobre los perjuicios del tabaco'. Bihar, 19:00etan, Kultur Etxean, Txaloren eskutik.

IRUN. 'Una pareja ideal'. Bihar, 20:00etan, Muaran, Pares sueltos taldearen eskutik.

MAULE. 'Herria ohoretan'. Bihar, gaueko 21:00etan, zinegelan, Muskildiko gazteen eskutik.

OÑATI. 'Errudun jaioak'. Gaur, gaueko 22:30ean, Santa Ana antzokian, Tanttakaren eskutik.

ORDIZIA. 'Comicólogos'. Gaur, 22:15ean, Herri antzokian, Glu Glu Producciones taldearen eskutik.

SANTURTZI. 'Muerte accidental de un anarquista'. Gaur, 20:30ean, Serantes Kultur Etxean, Tentazioa taldearen eskutik.

SESTAO. 'Mujer en la ventana'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, musika kontserbatorioan, Bonboliña taldearen eskutik.

ZARAUZ. 'Malabar ikuskizuna'. Urtarrilaren 20an, Maimur taldearen eskutik, 17:00etan hasita, gaztelekuan.

bertsolaritza

AIA. Bertso-afaria: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Gaur, iluntzean.

BEASAIN. Bertso-bazkaria: Aitor Sarriegi, Iker Zubeldia, Ekaitz Goikoetxea. Bihar, Garin auzoan, 14:00etan. Arratsaldeko saioa 18:00etan izango da.

IRUN. Anjel Mari Peñagarikano, Jexu Mari Irazu. Urtarrilaren 20an, Ola sagardotegian, eguerdian.

MARKINA-XEMEIN. Unai Iturriaga, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze. Urtarrilaren 20an, Bariñagako elizan, arratsaldeko 17:00etan.

hitzaldiak

DONOSTIA. 'L'orient dans le miroir, L'orientalisme photographique'. Gaur, 19:30ean, Koldo Mitxelena, Mounira Khemiren eskutik.

DEBA. 'Argentina: iraultza martxan'. Gaur, 20:00etan, Eloi Val,